

9-KOSTUEN EGITURA

Hasieran, guk inbertsio handia egin beharko dugula argi daukagu:

Lokala, hornitzaileak, infraesktruktura guztia, lokalean edukiko ditugun gailu elektronikoak eta tresnak edo makinak, lokalean erabiliko dugun bulegoko materiala...Gainera, guk erabiliko ditugun materialak ahalik eta ekologikoeneak izaten saiatuko gara eta ondorioz, material horien kostuak altuagoak izango dira. Bestalde, enpresa sortzeko lizentzia lortzeko ere kopuru bat oraindu beharko diogu gobernuari.

Kostuak bitan banatuko ditugu; alde batetik kostu finkoak daude eta bestetik aldakorrak: Kostu finkoei dagokienez, langileei ordaindu beharreko soldatak izango dira (gure soldatak), baita lokalaren alokairua, lokala erosteko mailegua, lehengaiak eta materialak erosteko beharrezko kredituaren kuota, lokalean erabiliko dugun elektrizitatearen eta uraren kuota. Aseguru etxeari ordainduko dioguna ere bertan sartuko litzateke, alde batetik garraioaren aseguruia eta bestetik lokalaren aseguruia.

Kostu aldakorrak aldiz, gure enpresan edukiko ditugun zerbitzu emateagatiko kostuak (elektrizitatea, ura...), materialak eta lehengaiak ere beharko ditugu produktuen instalaziorako eta ekoizpenerako. Horretaz gain, hornitzaileekiko ditugun zorrak (aldatuz joango dira erosten ditugun produktu kopuruen arabera) ordaindu beharko ditugu.

Inbertsio hauek guztiak kontuan izanda, hasieran diru galera izango dugu baina, urteak pasa ahala irabaziak jasotzen hastea espero dugu.

